

## “LAN EGITEAK BADU BERE SARIA”



*San Benito Ikastola | Aitor Madrazo | Xerpak | DBH*

San Benito Ikastolako Xerpak taldeak hirugarren postua lortu zuen Bigarren Hezkuntzan. Taldeko arduradun Aitor Madrazok galdetegiari erantzun dio.

***Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?***

Guk parte hartzen dugun mailan, informatikako klaseetan txertatzen dugu, beraz astean bi ordu jarduten gara.

***Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?***

Motibazioaren parte bat dela argi dago, baina geratzen diren postuak ere zer ikusia du.

***Eta irakasleak? Ikastetxea?***

Materiala ongi etortzen da.

***Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?***

Taldean lan egitea zer den benetan ikasten dutela eta batek ez badu egiten besteen kalterako dela somatzen dute.

***Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?***

Normalean arazo teknikoak sortzen direnean proiektuak entregatzerakoan.

***Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?***

Lan egiteak bere saria duela, eta ez bakarrik kosmodiseako saria baizik pertsonala.

***Eta irakasleei?***

Ikasle batzuk benetan ideia oso onak edukitzen dituztela lanak egiterakoan.

***Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?***

Bai.

***Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?***

Botazio sistema agian birplanteatu egin beharko litzeke, eta azken txanpan epaimahai bat jartzea komplementario bezala.